

Altza

Emakumeak
mintzo

Larraitz Garmendia [fnoa.: 943.391267]

datorren astelehenean "Emakumearen XV. Astea" antolatuko da. Urtero bezala, Altzako emakume elkarteak ekintza egitarau zabala prestatu du, beti ere zenbait kultur arlo landuz.

Hilaren 21ean, astelehena, Gerardo Markuleta idazle oñatiarrak olerki emanaldia eskainiko du Casares kultur etxean, arratseko 16.00etatik aurrera. Egun horretan hasita eta emakumearen astea iraun bitartean, Altzako emakumeek egindako eskulanak ikusgai izango dira 17.30etatik 21.00etara.

Asteartean, hilak 22, zineari egingo zaio tartea. 1998an Goya sarietan izugarritzko arrakasta izan zuen Fernando Leon de Aranoa zuzendariaren "Barrio" filmea ikusi ahal izango da San Jose de Calasanz Herri ikas-

tetxean, 15.45etatik aurrera. Filmea bukatu ondoren, Txus Bragadok "Hijos mayores en casa" hitzaldia eskainiko du.

Asteazkenerako antzerkia dago iragarrita. Altzako Ausartak taldeak, Dario Fo idazlearen "Tengamos el sexo en paz" lana moldatu du eta "Hablemos de...eso" izeneko lana taularatuko dute lehen aldiz. Altzako Auzo Etxean izango da, arratseko 16.00etatik aurrera.

Hilaren 24rako, mahai-ingurua antolatuta zegoen baina bertan behera geratu da. Hilaren 25ean bi ekintza nagusi daude: Rosa Regas idazlearen hitzaldi-solasaldia dago 16.00etan, Eraikuntzako Institutu Teknikoan. "Los hijos en casa" gaiari buruz ariko da.

Emakumearen astea Behobiako Enrique jatetxean bukatuko da, bertan egingo den afariarekin.



Amara Zaharra

Errondo eta Autonomia
arteko lotura

Eva Monente [fnoa.: 943-271111]

azkenean hainbeste haserre eta zersan eman duen oinezkoentzako pasabidea jarri da. Errondo pasealekua eta Autonomia kalea lotuta geratu dira. Trenbide gaineko zubi hau behin behinekoa da eta Eusko Trenek Donostiarako egiten ari den Hegoaldeko Tren Sahiesbidea bukatu bitartean mantenduko da. Carlos Sancho Obra eta Proiektuetako zinegotziak eman dizkigu lanaren xehetasunak. "Obra honek 10 milioi pezeta balio izan du. Merkea da kontuan hartuta erabili diren materialak: elondoko egurra eta altzairua. Jarritako zubia nahikoa handia da gainera: 21metroko luzera, 6 metroko altuera eta 1,80-2 metroko zabalera".

Pasabideak harrera ona

izan du bizilagunen artean, nahiz eta askok Udalak pasabidea egiteko denbora gehiegi pasatu duela kritikatu duen. "Orain dela bi urte ekin genien protestei. Hasieran trenbide-pasagunea eskatu genuen eta pasa den maiatzetik hona, pasabidea. Eta eskerrik horri, bestela ez guke ez bata ez bestea izango. Dena den saihasbidearen lanak bukatu eta gero, kalea berriro irekita nahi dugu, eta Udalaren konpromisoa lortu nahi dugu. Horregatik, bere garaian jarritako errekurtsioa mantenduko dugu, azkenean zer gertatzen den ikusi arte" azaldu digu Jose Ramon de Miguel, Amara Zaharreko bizilagunen elkarteko buruak.

Lanok, 2002-2003 urtean bukatuko dira eta hasiera batean Udalak sarbide berri bat zabaltzeko asmoa du.

REZOLA

Sagardotegia

- Sagardoa txotxetik eta botilatik
- Sagardotegiko menua. Arraina enkarguz
- Larunbat eta igandeetan eguerdiz irekita
- Astean zehar eguerdiz irekita enkarguz
- Urte gutzian gauz irekita



Ipintza baserria - Santio Zeharra - Tfnoa.: 943-55 66 37 - ASTIGARRAGA